

HONDARRIBIKO BANDERA KONPONDU BERRI DA



so egoera txarrean aurkitzen zen Hondarribia hiriko bandera konpondu berria izan da ia bi urte iraun dituen prozesu latz baten ondoren. Hala eta guztiz ere, oraindik, amaitu gabe dagoen prozesu baten aurrean gaude, momentu hauetan Udaletxeko Areto Nagusian zintzilik dagoena 1761 urteko bandera zahar haren kopia bat bait da.

Banderak 230 urte inguru izanik, duela urte pare bat Udaletxeak beronen konponketa egin beharreko zerbait zela ikusi zuten. Hori dela eta, Burgos-eko Castil de Lences-en dagoen Monasterio-ra bidali zen, Udaletxeko Kultur arloko burua eta Guadalupeko parrokoa den Juan Jose Etxaide presente izan zirelarik, bertako Moja Klarisek konpondu zezaten. Hori 1995eko apirilean izan zen, eta bertara bandera originala eraman zen, oso egoera txarrean aurkitzen zena, eredu moduan erabil zezaten bertako langileek.

1996ko abuztuaren haseraratte han egon zen konponketa lanetan; data horietan berriro ere Hondarribira ekarri zen, abuztuaren 14rako elizan egon behar bait du, tradizioak dioen lez. Hilabete beranduago berriro ere Burgos aldera bueltan itzulia izan zen konponketa lanekin jarraitu ahal izateko.

1997ko uztailaren bukaerarako 1761ean eginiko banderaren kopia bat egina zegoen, eta Udaletxean zintzilikatuta. Hala eta guztiz ere, bandera originalak Burgos-en jarraitzen du

azken ikutuak jasotzeko prest. Guztiz konponduta dagoenean, kristalezko armairu batean gordeko da hobeto kontserbatu dadin.

Xehetasun modura, esan, bandera konpondu zutenek zenbait paper puska aurkitu zituztela beronen barnean. Berauetan, bandera noiz egin zen agertzen da, eta baita noiz egiz zitzaion konponketa bat ere. Paper hauetako bat, hiru pusketatan dago, tinta urdinez idatzita, eta bertan esaldi bat agertzen da: "1911, restaurado por el taller del Sagrado Corazón de Fuenterrabia". Ondoren, konpondu zutenen sinadurak ere agertzen dira.

